

LAN ARRISKUEN PREBENTZIOARI buruzko

2023 **XX.**

Argazki-lehiaketa



Zure ikuspegia baliotsua da, partekatu!

Mutualiaren Prebentzio-ahokularitzak, LAN ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO XX. ARGAZKI-LEHIAKETA abian jarri du. Lehiaketak, bere balio artistikoagatik bai prebentzioaren egungo egoera islatzeagatik, gizartean segurtasunaren gaineko kontzientzia hartzeko eta sentsibilizatzeko lagungarriak gerta daitezkeen argazkien egileak saritu nahi ditu.

Oraingo honetan, adimen artifiziala hartzen ari den garrantzia dela eta, teknologia horren bidez sortutako irudi onena sarituko duen modalitate berri bat gehitu da, haren algoritmoak ere laneko arriskuekiko "sentikorrak" izan daitezzen.

Modalitateak:

- Argazki-lehiaketa.
- Adimen artifizial (AA) bidez sortutako irudien lehiaketa.

Sariak, dirutan, honako hauek dira:

- Argazkigintzako lehenengo saria: 1.200 €
- Argazkigintzako bigarren saria: 900 €
- Argazkigintzako hirugarren saria: 600 €
- AA bidez sortutako irudiaren saria: 400 €

Argazki eta irudiak lan arriskuen prebentzioari buruzkoak izango dira, eta estatuko errealitatera mugatu beharko dute. Argazkian gaiaren ezaugarriak irudikatu beharko dira eta, horretarako, arrisku egoerak edo jardunbide egokiak islatuko dira. Azken horiek balorazio positiboagoa jasoko dute. Argazki eta irudiek jatorrizkoak eta eskusiboki parte-hartzailearenak behar dute. Ezingo dute lehiaketan parte hartu aldez aurretik argitaratu direnek edo lehiaketaren batean saria jaso dutenek.

Argazkien formatuari dagokionez:

- Argazkiak JPG formatu digitalean bidaliko dira.
- Irudiek gutxienez 6 megapixeiko bereizmena izan behar dute.
- Fitxategiaren tamaina 10 MB-koa izango da gehienez ere.

AA bidez sortutako irudien formatuari dagokionez:

- Argazkiak JPG formatu digitalean bidaliko dira.
- Irudiek gutxienez 3 megapixeiko bereizmena izan behar dute.
- Fitxategiaren tamaina 10 MB-koa izango da gehienez ere.

Argazkiak eta irudiak helarazteko bidali iezaguzu, posta bat honako helbide elektronikora: **prebentzioa@mutualia.eus** Honako hauek erantsi beharko dira:

- Argazkiaren edo irudiaren fitxategia, egilearen izen-abizenekin identifikatuta.
- Gure web orrian aurkitu dezakezun "Deskribapen orria" behar bezala beteta eta egilearen izen-abizenak adierazita.

Argazkiak aurkezteko epea 2023ko martxoaren 31ean amaituko da.

Epaimahaiaren erabakia behin betikoa eta apelaezina izango da, eta 2023ko apirilaren 28an ezagutaraziko da MUTUALIAREN web orrian eta sare sozialetan.

Animatu parte hartzera!

Oinarri osoak web gunean aurki ditzakezu:

www.mutualia.eus

Edozer zalantza edo kontsulta izanez gero:

prebentzioa@mutualia.eus

Partekatu
lankideekin:

